

PROPOSAMENA, “MENCHU GAL LORATEGIAK” IZENA JARTZEKO

Josu Ruiz BILDU taldearen bozeramaileak, Ernesto Gasco Gonzalo PSE-EE taldearen bozeramaileak, Ramon Gómez Ugalde PP taldearen bozeramaileak eta Eneko Goia Laso EAJ/PNV taldearen bozeramaileak, Udaltzaren Organo Araudiko 90. eta 91. artikulua oinarri, ARAU PROPOSAMEN hau aurkezten dute, Parke kaleko 3. zenbakiaren parean dauden lorategiei “Menchu Gal lorategiak” izena jartzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Gutxi izango dira duela gutxi hil zen margolari hau (Irun, 1918ko urtarrilaren 7a - 2003ko martxoaren 12a) ezagutzen ez dutenak; haren bokazioa goiztiarra eta konstantea izaki, haurra zenetik hil baino lehentxeagora arte jardun zuen margotzen.

15 urterekin Parisera aldatu zen bizitzera, haren maisu Gaspar Montes Iturrioren aholkuari jarraituta; gero, Madrilera, San Fernando Arte Ederretako Akademian ikastera, eta Madrilgo Eskola deritzoneko kide ere izan zen.

Veneziako Bienalean esku hartu zuen 1940., 1950., eta 1956. urteetan. 1959an Pinturako Sari Nazionala lortu zuen; 2005ean, Gipuzkoako Urrezko Domina; 2006an, Irungo Urrezko Domina eta Eusko Ikaskuntzaren Manuel lekuona Saria. Haren pintura obra zabalean, paisaiak, erretratuak eta natura hilak daude, nortasun handiaren erakusgarri.

“Menchu Gal lorategiak” izendatzeko proposatzen dugun aldea Parke kaleko 3. zenbakiaren pareko lorategiak dira.

Horiek horrela direla, hauxe da Bildu, PSE-EE, PP eta EAJ udal taldeek Udalbatzari azterkizun aurkeztutako **PROPOSAMENA**:

Donostiako Udalbatzak erabaki du Parke kaleko 3. zenbakiaren pareko lorategiei izen hau jartzea:

Gaztelaniazko izen ofiziala	Euskal izen ofiziala
Jardines Menchu Gal	Menchu Gal Lorategiak

Donostia, 2014ko abenduaren 12a

Josu Ruiz, Bilduren bozeramailea.	Ernesto Gasco Gonzalo, PSE-EEren bozeramailea.	Ramon Gomez Ugalde, PP taldearen bozeramailea	Eneko Goia Laso, EAJren bozeramailea.
---	---	--	---